

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Zergapekoen errolda eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotak jendaurrean jartzea 2026 eta kobratzeko epea

Jendaurrean daude, udal idazkaritzan, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2026ko erroldak eta kuotak, eta hori argitaratzen da, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten oharrak edo alegazioak aurkezteko, 15 egun balioduneko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat joko da, eta kobratzeko aldia hasiko da.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2026ko maiatzaren 6tik uztailaren 7era.

B) Betearazte aldia: 2026ko uztailaren 8tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak.

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Eltziegoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Eltziego, 2026ko martzoaren 24a

Alkatea

JUAN CARLOS URIBE RUEDA